

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN KIROL-ARLOKO LANBIDEETAN SARTZEARI ETA JARDUTEARI BURUZKO LEGE PROIEKTUA



Galderak eta erantzunak

Otsaila 2018

AURKIBIDEA

	Or.
EZAUGARRI OROKORRAK	3
KUALIFIKAZIOAK	6
GORPUTZ-HEZKUNTZAKO IRAKASLEA	9
KIROLEKO BEGIRALEA / ENTRENATZAILEA	11
KIROLEKO ZUZENDARIA	16
ELKARGOKO KIDE EGITEA ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KIROL ARLOKO PROFESIONALEN ERREGISTROA	17
BETEBEHAR PROFESIONALAK	18
ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA	18
LEHEN LAGUNTZAK	19
PLATAFORMA BIRTUALEN BIDEZKO EDO INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIEN BIDEZKO LANBIDE-JARDUNA	19
LEGEAREN IRAGANKORTASUNA	20
ARAU-HAUSTEAK	22

Galdera eta erantzun hauek behin-behinekoak dira, eta, beraz, ez dute ondore loteslerik. Izan ere, Legebiltzarrean izapidetzen den bitartean aldatu daitekeen proiektu bati buruzkoak dira.

EZAUGARRI OROKORRAK

1. Zergatik behar da kirol-arloko lanbideei buruzko lege bat?

Kirola eta jarduera fisikoak egitea onuragarria da pertsonentzat, osasuneko eta segurtasuneko baldintzak betetzen badira. Antolatutako jardueretan jarduera horiek zuzentzen dituzten pertsonen erantzukizuna da kirolgileen osasuna eta segurtasuna bermatuko dituzten baldintzak ezartzea, eta, beraz, ezinbestekoa da pertsona horiek prestakuntza egokia edukitzea, zuzentzen dituzten jarduera horietarako.

2. Zein administrazio da legearen arduraduna?

Legea, hala badagokio, Eusko Legebiltzarrak onartuko du. Ondoren, Eusko Jaurlaritzak garatu beharko du araudia.

3. Zeini eragiten dio zuzenean lege honek?

Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan gorputz-hezkuntzako irakaslearen, kiroleko begiralearen, entrenatzailearen edo kiroleko zuzendariaren lanbidean erregularatasunez aritzen diren pertsonen.

4. Nola eragiten die legeak araututako lau lanbideetako baten profesionalki jardungo duten pertsonen?

Kiroleko lanbideetara sartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Kualifikazio jakin bat eduki beharko dute.
- b) Prestakuntza eduki beharko dute lehen laguntzan.
- c) Dagokien elkargo profesionalera sartu beharko dute, Estatuko legedian hala ezartzen bada, edo, halakorik ezean, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Arloko Profesionalen Erregistroan.
- d) Erantzukizun zibileko aseguruia eduki beharko dute, hirugarren batentzako kalteak estaltzeko.

Profesionalki jarduteko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- e) Bete egin beharko dituzte legean ezarritako betebeharrak profesionalak.

5. Lege honek kirol-arloan jarduten duten pertsonak lan-kontratu bat edukitzera behartzen al ditu?

Ez. Lege honek ez ditu lan-harremanak arautzen. Kirol-arloko jarduera bat lan-arabidean edo boluntario-arabidean egin behar ote den zehazten dutenak lan-arloko beste arau batzuk dira, lehendik ezarrita zeudenak.

6. Lege honek kirol-arloko ikasketa edo titulazioak arautu edo titulu berriak ezartzen ditu?

Ez, legeak ez du kirol-arloko titulaziorik sortzen, aldatzen edo arautzen. Gaur egun, kirol-arloan titulu edo ziurtagiri ofizial asko daude (unibertsitateko titulazioak, lanbide-heziketako titulazioak, profesionaltasun-ziurtagiriak,

araubide bereziko eta behin-behineko kirol-irakaskuntzak). Legean zehaztu egin da prestakuntza edo ziurtagiri ofizial horietako zeintzuek egiaztatzen duten araututako lau lanbideetako bakoitzean jarduteko prestakuntza betetzen dela.

7. Legeak lau lanbide horietan boluntarioki jarduten duten pertsonen jarduera ere arautzen al du?

Orokorrean ez, lanbideen lege batek profesionalki jarduten duten pertsonen jardura soilik arautu baitezake. Edonola ere, lege honek, kirolgileen osasuna eta segurtasuna bermatzeko asmoz, zehaztu egiten du boluntarioek beren kirol-jardueretan parte har dezaten bete behar dituzten lehen laguntzako eta prestakuntzako baldintzak orokorrean kasuan kasuko lanbideetan profesionalentzat ezarritako berberak izango direla. Ez dago betebeharrak gehiago boluntarioentzat (erantzukizunpeko aitortpena aurkeztea, erregistroan inskribatu edo elkargoko kide egitea, erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea, eta profesionalen beste betebeharrak batzuk).

8. Eta lanbideei lotutako jarduerak lagunen edo senideen harremanetan edo antzekoetan egiten badira?

Jarduerak erregularitasunez edo modu antolatutako edo egituratutako egiten ez badira, ez.

9. Administrazio publikoek antolatutako jardueretan diharduten pertsonen ari diren eragiten die, ala baita erakunde pribatuak antolatutako jardueretan ari diren pertsonen ere?

Baita beren jardura profesionala erakunde pribatuak garatzen duten pertsonen ere. Legea aplikatuko da, hala sektore publikoan betetzen denean lanbidea, nola pribatuan betetzen denean; berdin izango da zerbitzu profesionalak zein erakundetan ematen diren, hau da, erakunde publiko edo pribatuak ematen diren, edo irabazi-asmoa duten erakundeetan edo irabazi-asmorik gabekoetan ematen diren.

10. Legeak nolabait arautzen al du jardura fisikoa edo kirola praktikatzeko duten pertsonen jardura? Betebeharrak izango al dute?

Ez. Kirolgileak izango dira araudi honen azken onuradunak, prestakuntza altuagoa duten pertsonen garatutako jardura fisikoak eta kirola praktikatu ahaliko dutelako, baina ez dute betebeharrak izango.

11. Eta kirol-erakundeen eragiten al die?

Bai. Kirol-erakundeek honako betebeharrak izango dituzte:

- o Beren erakundeetan jarduten duten pertsonen, profesionalen nahiz boluntarioen, legean ezarritako prestakuntzako nahiz lehen laguntzako baldintzak betetzen dituztela bermatu beharko dute.

- Profesionalak kontratatzen badituzte:
 - Idatziz formalizatu beharko dute zerbitzuak emateko kontratua, eta argi eta garbi jaso beharko dute prestakuntza egiaztatuta dagoela.
 - Informazio argia eta ikusteko modukoa eman beharko diete erabiltzaileei profesionalak duten prestakuntza profesionalaren gainean (webgunea, iragarki-taula, eta abar).
 - Erantzukizun zibileko aseguruak sinatu beharko dute, profesionalak hirugarrenei eragin diezazkieten kalteen ordaina estaltzeko. Boluntarioen kasuan ere halaxe jokatu beharko da, baina kasu horretan, ez legeak berak hala ezartzen duelako, baizik eta boluntarioei buruzko EAEko legedian horixe xedatzen delako.

12. Legeak prestatzaile fisikoaren lanbidea aurreikusten al du?

Legeak jarduera profesional hori aurreikusten du, baina kiroleko begiralearen edo entrenatzailearen lanbideetan sartuta, kontuan hartuta ea prestakuntza-jarduerak, sasoi fisikoa mantendu, berreskuratu edo hobetzeko asmoz, lehiara bideratzen diren (entrenatzailea) edo ez (kiroleko begiralea).

13. Zergatik ez dira arautu kirolarekin lotutako beste lanbide batzuk, besteak beste epaile, arbitro edo kirol-agenteak?

Indarreko legediaren arabera, ezin dira arautu pertsonen osasunari eta segurtasunari argi eta zuzen eragiten ez dieten jarduerak garatzen dituzten lanbideak.

14. Eta kirol-instalazioen edo kirol-erakundeen kudeatzaileei eragiten al die legeak? Eta administrazio publikoetako teknikari edo langileei?

Garatzen dituzten jardueren arabera izango da eragina. Hau da, jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzien ezagutza eta teknikak aplikatzea eragiten ez duten zereginak soilik betetzen badituzte (administrazio, ekonomiako, laneko, instalazioen mantentze-lanetako edo antzekoetako lanak egiten badituzte, esaterako), ez dute lege honetan ezarritakoaren eraginik jasango. Bestalde, kirol-zuzendaritzaren berezko eginkizunak garatzen badituzte, nola partzialki, hala osorik (kiroleko zerbitzu edo jardueren zuzendaritza tekniko, plangintza, koordinazioa edo ikuspena), eragina izango dute, eta kiroleko zuzendarientzat ezarritakoa bete beharko dute.

15. Eta kiroleko klub, federazio eta antzeko kirol-erakundeetako buru eta zuzendariei eragiten al die lege honek?

Aurreko erantzunean bezala, garatzen duten jardueren arabera izango da eragina. Berez kirol-arlokoak ez diren zuzendaritza-lanak soilik egiten badituzte, hau da, plangintza eta zuzendaritza estrategiko edo orokorreko zereginak, edo ekonomia, lan, administrazio... zereginak, ez dute lege honen

eraginik jasango. Kirol-arloko zuzendaritzako edo araututako beste hiru lanbideetako berezko eginkizunen bat garatuz gero, aldiz, legean ezarritako eskubide eta betebeharrak berberak bete beharko dituzte.

16. Eragiten al die kirol-arloko zenbait modalitate edo diziplinarekin lotutako jarduerak egiten dituzten pertsonen, kirol-izaera eduki ez arren, adibidez urpekaritza profesionala, kirolekoa ez den parakaidismoa, edo kirolekoak ez diren salbamendu eta sorospena (uretako soroslea) bezalako jarduerak egiten dituztenei?

Ez. Legeak kirol-izaerako jarduerak zuzendu edo ikuskatzen dituzten pertsonen soilik eragiten die. Legeak argi uzten du, adibidez, bere eremutik kanpo daudela urpekaritza profesionala, kirolekoa ez den parakaidismoa, edo kirolekoa ez den salbamendu eta sorospena bezalako jarduerak. Hala ere, legearen eragina jasango lukete jardura horien kiroleko bertsioan araututako lau lanbideetakoren batean jarduten duten pertsonen: kiroleko edo aisialdiko urpekaritza, parakaidismoaren kirol-diziplina, edo salbamendu eta sorospena.

Horren harira, lege honen aplikazio-eremutik kanpo daude, halaber, kirol-izaerakoak ez diren aisialdi-ontziak maneiatu edo gobernatzeko eragiketak, kirol-izaerakoak ez diren motordun ibilgailu edo gailuen gidaritzak, ibilbideetako teknikarien berezko jardura profesionalak eta kirol-arlokoak ez diren dantza-jarduerak.

17. Beste autonomia-erkidego edo herrialde batean bizi diren (helbidea bertan duten) baina jardura profesionalak Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen dituzten profesionalen aplikatu behar al zaie legea?

Bai, honako bi kasu hauetan:

- a) Jarduerak erregularitasunez garatzen badira Euskal Autonomia Erkidegoan.
- b) Edo Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren kontsumitzaile edo erabiltzaileei zuzentzen bazaizkie.

Ez, baldin eta jarduerak kasu zehatzetan egiten badira, eta beste autonomia-erkidego edo herrialde batzuetan bizi diren pertsonen zuzentzen bazaizkie.

KUALIFIKAZIOAK

18. Zein kualifikazio eduki behar da lanbide eta jardura profesionaletan jarduteko?

Erantsitako taulan ikus daitezke lanbide bakoitzean dauden jardura profesionalak, bai eta horietako bakoitzean jarduteko kasuan kasuko

kualifikazioa dutela egiaztatzen duten titulazio eta prestakuntza ofizialak ere.
[Lanbideen kualifikazioen taula](#)

19. Zein irizpide jarraitzen da titulazio batzuek jarduera profesional batean jarduteko aukera eman dezaten eta beste batzuek, ordea, ez?

Jarduera profesional bakoitzerako jaso diren titulazioek edo prestakuntzek arlo honekin lotutako hainbat eduki dituzte beren prestakuntza-curriculumetan, eta, beraz, prestakuntza horiek gainditu dituzten pertsonen aukera ematen diete kasuan kasuko lanbiderako ezagutza edo konpetentziak eskuratzeko. Halaber, kirol-arloko eremu edo diziplina jakin batzuetarako, kasuan kasuko titulazio edo prestakuntza espezifikoak gainditu dituzten pertsonen gain, lanbide horretan jardun ahalko dute prestakuntza orokorra gainditu duten eta dagozkien kirol-eremu edo -diziplinetan nolabaiteko prestakuntza espezifikoa eduki edo eskuratu dutela egiaztatzen duten pertsonen.

20. Jarduera profesional batzuetan, dagokion kualifikazioaz gain, prestakuntza espezifiko jakin bat ere behar da. Zer esan nahi da "prestakuntza espezifikoa" aipatzean?

Legea onartzen denean, jarduera profesional bakoitzerako prestakuntza espezifikoaren baldintzak arautuko dira. Orokorrean, prestakuntza espezifikoaren barruan egiaztatu ahalko dira titulu, ziurtagiri edo prestakuntza ofizialak, bai eta titulu edo ziurtagiri horien zatietako batzuk ere (moduluak, unibertsitateko maisutzak, eta abar).

21. Zer dira profesionaltasun-ziurtagiriak, eta zein ziurtagiri daude jarduera fisikoen eta kirolaren familian?

Lan-administrazioan (EAEn, Lanbiden) kualifikazio profesionalak ofizialki egiaztatzeko tresna dira profesionaltasun-ziurtagiriak. Ziurtagiri horiek ofizialak eta baliozkoak dira Estatu osoan, eta lan-jarduera bat garatzeko gaitzen duten konpetentzia profesionalak egiaztatzen dituzte. [Informazio gehiago](#)
Gaur egun, jarduera fisikoen eta kirolaren familian 17 ziurtagiri daude. [Informazio gehiago](#)

22. Jarduera Fisikoen Zientzietako Gradua edo legean jasotako beste edozein titulazio daukan ikasle bat izan al daiteke begiralea edo entrenatzailea ikasketak egin bitartean?

Legearen arabera, legean eskatzen den kualifikazioa egiaztatzeko dagokion titulua edo ziurtagiria eduki behar du, eta, beraz, ezingo lukete hala jardun. Nolanahi ere, legea progresiboki aplikatzea aurreikusi da. Hori dela eta, egiaztatzen bada ez dagoela lege honetan aurreikusitako kualifikazioak dituen profesionalik une bakoitzean dagoen eskaintzari behar bezala erantzuteko, kualifikazio txikiagoa edo antzeko beste prestakuntza-mota bat duten pertsonak gaituko ditu behin-behinekoz. Kasu horretan, ikasketen zati

bat gainditu duten ikasleak egon ahalko dira behin-behinean gaitutako pertsonen artean.

23. Eta ikasketaren baten berezko praktikak egiten dituen bitartean?

Ezta ere. Praktikak titulazio baten ikasketen parte dira, eta horiek gainditu arte ez da titulazio egokia eskuratzen.

24. Eta kirol-arloan prestakuntza dualeko ikasketak egiten ari diren pertsonen kasuan?

Legean aurreikusitako kualifikazio profesionalak ez dira eskatuko prestakuntza duala egiten duten ikasleen kasuan, baldin eta prestakuntza hori kirol-arlokoa bada.

25. Eta prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuak dituzten langileen kasuan?

Prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratuak dituzten langileei ere ez zaizkie eskatuko lege honetan aurreikusten diren kualifikazio profesionalak. Edonola ere, egoera horretan dauden pertsonak izena eman beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Arloko Profesionalen Erregistroan.

26. Eta pertsona batek kualifikazioa ezberdina behar duten bi jarduera profesional garatzen baditu, bi kualifikazioak izan behar ditu?

Bai.

27. Kirol-federazio batek lizentzia bat ez ematea erabaki al dezake federazio-mailakoa ez den titulazio bat egiaztatzeagatik?

Kirol-federazioek, bai estatu-mailan kirolaren arloan indarrean dagoen legediaren arabera, bai lege-proiektuaren arabera, bete egin behar dituzte legean aurreikusitako kualifikazio-baldintzak, eta debekatuta dago federazio-maila ez duten zentroetan lortutako edozein prestakuntza baztertzea. EAEko kirol-federazio batek legezko aurreikuspen horiek urratuko balitu eta federazio-mailako lizentzia bat ukatuko balio entrenatzaile bati, administrazio-errekurtsua jarri ahalko litzateke Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzan. Hala ere, federazio-mailako lizentziak emateko eskuordetutako funtzio publikoak administrazioan esku hartu ahalko du, eta bidezkoak diren administrazio-zehapenak ezarri ahalko dituzte agintari eskudunek, eskumena defendatzearen gainean ezarritakoa mugatzen duten ustezko praktiken ondorioz.

GORPUTZ-HEZKUNTZAKO IRAKASLEA

28. Nola eragiten die legeak gorputz-hezkuntzako irakasleei, kontuan hartuta hezkuntza-sisteman dagoeneko partzialki araututa dauden profesionalak direla?

Orokorrean, kiroleko gainerako profesionalei bezala eragiten die, baina hainbat berezitasun izango dituzte:

- o Gorputz-hezkuntzako irakasle izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - a) Kualifikazio jakin bat eduki beharko dute. Legeak, kasu honetan, ez du zehazten gorputz-hezkuntzako irakasleek zein kualifikazio zehatz eduki behar duten. Horren ordeztan, hezkuntzaren gaineko legedian ezarritakora jotzen du.
 - b) Prestakuntza eduki beharko dute lehen laguntzan.
 - c) Dagokien elkargo profesionalera sartu beharko dute, estatuko legedian hala ezartzen bada, edo, halakorik ezean, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Arloko Profesionalen Erregistroan.
- * Administrazio publiko baten zerbitzura edo hirugarrenen kontura jardutean, ez da beharrezkoa izango erantzukizun zibileko aseguru bat izenpetzea.
- o Gorputz-hezkuntzako irakasle-lanetan jarduteko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - d) Bete egin beharko dituzte legean ezarritako betebeharrak profesionalak.

29. Hezkuntzaren gaineko legediaren arabera, lehen hezkuntzako gorputz-hezkuntzako irakasleek zein kualifikazio eduki behar dute ikastetxe publikoetan jarduteko?

Irakasleen kidegoen kasuan (karrerako funtzionarioak), irakaslearen titulua edo dagokion graduak titulua eduki beharko dute, bai eta gorputz-hezkuntzako espezialitatea ere. Espezialitate hori eskuratzeko, irakasleen kidegoan sartzeko prozedura selektiboa (oposizioa) gaititu beharko dute. Irakasleen kidegoko funtzionarioek gorputz-hezkuntzako espezialitatea eskuratu ahal izango dute, halaber, espezialitate berriak eskuratzeko prozesu bat gaitutuz, 276/2007 Errege Dekretuaren 52. artikuluan eta hurrengoetan araututakoaren arabera, edo kirol-arloko titulazioaren bat edukitzean: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduduna edo Gorputz-hezkuntzako lizentziaduna / Gorputz-hezkuntzako diplomaduna edo irakaslea edo Lehen Hezkuntzako graduduna gorputz-hezkuntzaren aipamenarekin.

Bestalde, herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrendan sartzeko, interesdunak Eusko Jaurlaritzako araudiak finkatzen duen ondorengo titulazioetarako baten jabe

izan beharko da: Maisu-maistraren titulua, Gorputz Hezkuntza espezialitatea; Gradua Lehen Hezkuntzan, aipamena edo ibilbidea Gorputz Hezkuntzan; maisu-maistraren edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasletzako diplomadunaren titulua+ Lizentziatura edo Diplomatura Gorputz Hezkuntzan edo Gradua Jarduera Fisikoaren eta Kirol Jardueraren Zientzietan; edo Gradua Lehen Hezkuntzan + Lizentziatura edo Diplomatura Gorputz Hezkuntzan edo Gradua Jarduera Fisikoaren eta Kirol Jardueraren Zientzietan.

30. Eta itunpeko ikastetxeetan edo ikastetxe pribatuetan?

Ikastetxe pribatuetako (edo itunduetako) irakasleen kasuan, irakasle izan ahalko dira gorputz-hezkuntzako aipamena izanda lehen hezkuntzako gradudunak direnak edo gorputz-hezkuntzako irakasleak.

Era berean, gorputz-hezkuntzaren espezialitatea edo aipamena ez duten irakasleek ere jardun ahalko dute, baldin eta honako baldintzaren bat betetzen badute:

- o Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzien eremuko graduduna edo lizentziaduna izatea.
- o Gorputz-hezkuntzako lizentziaduna izatea, edo lizentzia horretako hiru ikasturte oso gaindituta edukitzea.
- o Gorputz-hezkuntzako diplomaduna izatea.
- o Gorputz-hezkuntzako espezialitateko ikasturteak edo Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak homologatutakoak gaindituta izatea.
- o Gorputz-hezkuntzako espezialitateko oposizio-fasea gaindituta izatea.

31. Eta ikastetxe publikoetan jarduten duten bigarren hezkuntzako edo batxilergoko irakasleen kasuan?

Bigarren hezkuntzako irakasle-kidegoetara sartzeko (karrerako funtzionarioak), doktore, lizentziadun, ingeniari, arkitekto edo dagokion gradu-titulua eduki behar da, bai eta prestakuntza pedagogiko eta didaktiko egokia ere (Irakaskuntzarako Gaitasun Ikastaroa edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntzako Unibertsitate Masterra). Halaber, gorputz-hezkuntzako espezialitatea eduki behar da, eta, horretarako, dagokion prozedura selektiboa gainditu behar da.

Bestalde, herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrendan sartzeko, Eusko Jaurlaritzako araudiaren arabera, interesduna Gorputz Hezkuntzako lizentziaduna edo Jarduera Fisikoaren eta Kirol Jardueraren Zientzietan graduduna izan beharko da eta, horrez gain, IGA edo Irakasleen Prestakuntzako Masterra Gorputz Hezkuntzako espezialitatean, eskuratuta.

32. Eta itunpeko ikastetxeetan edo ikastetxe pribatuetan jarduten duten bigarren hezkuntzako edo batxilergoko irakasleen kasuan?

Hiru baldintza hauetakoren bat eduki behar dute:

- o Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako edo Gorputz-hezkuntzako graduduna edo lizentziaduna izatea.
- o Altuagoa den edozein unibertsitate-titulazio edukitzea, eta aurreko puntuko tituluak eskuratzeko ikasketetan ziklo bat gainditu izana egiaztatzea.
- o Medikuntzako graduduna edo lizentziaduna izatea, Kirol-medikuntzako espezialistaren Diploma egiaztatuta.

33. Eta jarduera fisikoaren eta kirolaren familiako ikasketak edo prestakuntzak dituzten irakasleek ere bete behar al dituzte gorputz-hezkuntzako irakasleentzat ezarritako baldintzak?

Ez, legeak ez ditu arautzen irakaskuntza hauen barruan kirol-gaiak ematen dituzten irakasleen jarduerak: unibertsitate-irakaskuntza, lanbide-heziketa, araubide bereziko kirol-irakaskuntza, karrera militarreko irakaskuntza, prestakuntza-jarduera ez-formalak; eremu horretatik kanpo gelditzen dira, halaber, berez gorputz-hezkuntzako irakaskuntzakoak ez diren gaiak ematen dituztenen lanbide-jarduerak.

KIROLEKO BEGIRALEA / ENTRENATZAILEA

34. Zein alde dago kiroleko begiralearen eta entrenatzailearen artean?

Entrenatzailearen jarduera profesionalak kirol-lehiara bideratuta daude; begiralearenak, ordea, ez.

35. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako (lehengo SHEE) gradudun batek kiroleko edozein jarduera profesionaletan jardun dezake?

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradudunek prestakuntza zabala dute jarduera fisikoaren eta kirolaren eremuan. Hala ere, arlo batzuetan jardun ahal izateko, prestakuntza espezifiko jakin bat ere eduki beharko dute, ikasketetan edo horietatik kanpo eskuratu beharko dutena. Horrenbestez, prestakuntza espezifiko duten kirol-modalitate edo -diziplinetan izan ahalko dira soilik entrenatzaile.

36. Federazio-mailako titulazio ez ofiziala duen pertsona bat jardun al daiteke entrenatzaile- edo begirale-lanetan dagokion kirol-modalitatean ala -diziplinan?

Estatuan indarrean den legediaren arabera etorkizunean aitortua izango den edo izan daitekeen prestakuntza ote den baloratu beharko da. Aitortua izan daitezkeen federazio-mailako prestakuntzak honako hauek dira:

- o 1999. urtea (uztailak 15) baino lehenagokoak: mendiko kirolak, neguko kirolak, eskubaloia, saskibaloia, atletismoa, espeleologia, kirol-urpekaritza, bela, hipika, eskrima, salbamendua eta sorospena, eta judoa eta defentsa pertsonala.
- o 2007. urtea (azaroak 9) baino lehenagokoak: futbola, neguko kirolak, gimnastika, tenisa, padela eta piraguismoa.
- o 2002. urtea (abenduak 31) baino lehenagokoak: gainerako kirol-modalitate eta -diziplinak, beste bi taldeetan aurreikusi ez direnak.

Nolanahi ere, lanbideren batean esperientzia jakin bat egiaztatzen duten pertsonak behin-behinean jardura profesional hori garatzen jarraitu ahal izango dute, gaikuntza-prozedura baten bidez. **Ikus behin-behineko gaikuntzari buruzko galderak.*

37. Ondorioz, EAEko futbol, saskibaloia eta beste kirol batzuetako kategoria goreneko talde profesionaletako entrenatzaileek goi-mailako kiroleko teknikarien titulazio ofizialean (edo III. mailan) soilik jardun ahalko dute?

Ez. Kirolariek edo kirol taldeek gainerako lehiakideek dituzten baldintzetan lehiatu ahal izateko, legeak gaikuntza automatikoa aurreikusten du kasuan kasuko federazio espainiar edo nazioartekoak eskatzen duen titulazio gorena duten pertsonak errendimendu handiko lehiaketetan entrenatzaile-lanak egiteko. Gaikuntza hori eraginkorra izango da, kasuan kasuko federazio espainiar edo nazioartekoak kualifikaziorik gabe edo lege honetan eskatutakoez besteko kualifikazio batzuekin jarduteko aukera ahalbidetzen duen bitartean.

38. Zein bateragarritasun dago aitortutako federazio-prestakuntzen (aurreko galderan ezarritako urteak baino lehenagokoen) eta legeak aurreikusten dituen kiroleko teknikarien eta goi-mailako kiroleko teknikarien prestakuntzen artean?

Orokorrean, eta modalitatez modalitate aztertu beharko den arren, nomenklatura desberdinak erabiltzen baitira, dagokion kirol-diziplinako "begiralearen" federazio-titulazioak bat etorriko dira erdi-mailako graduak hasierako zikloarekin; "entrenatzaile erregionalaren" edo "entrenatzaile laguntzailearen" titulazioak bat etorriko dira kiroleko teknikariarekin; eta "entrenatzaile edo irakasle nazionalaren" titulazioak bat etorriko dira goi-mailako kiroleko teknikariarekin.

39. Trantsizio-aldiko I., II. eta III. mailako prestakuntza ofizialak balizkoak al dira?

Bai. Legean kiroleko teknikarien eta goi-mailako kiroleko teknikarien titulazio akademikoei egindako erreferentziak hedatu egin daitezke trantsizio-aldian eskuratutako I., II. eta III. mailako titulazioetara. I. mailako prestakuntzak bat datoz erdi-mailako graduak hasierako zikloarekin; II. mailako prestakuntzak kiroleko teknikariarekin; eta III. mailakoak goi-mailako kiroleko teknikariarekin.

40. Foru-aldundiek antolatuta eskolako begirale-prestakuntza eskuratu duen pertsona batek jardun al dezake eskola-kiroleko entrenatzailearen edo begiralearen lanetan?

Legearen arabera, foru-aldundiek antolatutako eskolako begirale-prestakuntza jasotzea ez da aski kiroleko lanbide batean jardun ahal izateko prestakuntza egiaztatzeko. Nolanahi ere, legea indarrean jarri baino lehen prestakuntza hori gainditu duten pertsonak behin-behinean gaituko dira eskola-kiroleko kirol anitzeko jardueretan entrenatzaile edo begirale izan daitezen. Behin-behineko gaituntza eskuratu duten gainerako pertsonak bezala, ondoren, eskuratutako konpetentziak aitortzeko prozesua gainditu beharko dute, esperientziaren eta prestakuntza ez formalaren bidez. **Ikusi konpetentziak aitortzeko prozedurari buruzko galderak.*

41. Zein izan daiteke eskola-kiroleko begirale edo entrenatzailea kirol anitzeko edo diziplina anitzeko jardueretan (kirol anitza, kirol-hastapena, eta abar)?

Horrelako jarduera-motetan jarduteko, kiroleko modalitate edo diziplina bakar baterako orientazio zehatzik gabe, prestakuntza egiaztatua eskatuko da: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua, Jarduera Fisikoko eta Kiroleko Animazioko goi-mailako teknikaria, edo Gizarte eta Kiroleko Irakaskuntza eta Animazioko goi-mailako teknikaria, edo Ingurumeneko Jarduera Fisikoko eta Kiroleko Gidaritzako teknikaria, baldin eta jarduera batez ere edo bakar-bakarrik ingurumenean garatzen bada. Natura-ingurunean antolatzen diren eta nolabaiteko arriskua duten jardueretan lan egiteko edota animaliekin lan egiteko, ezinbestekoa izango da aurreko kualifikazio horietako batzuk egiaztatzea eta, horretaz gain, garatu beharreko jardueretan aritzeko prestakuntza espezifikoa izatea.

42. Zein izan daiteke eskola-kiroleko begirale edo entrenatzailea oinarritzko mailako kirol-diziplina edo -modalitate bakarreko jardueretan?

Kasu honetan, eskatu daitekeen prestakuntza honako hau izango da: profesionaltasun-ziurtagiria, kiroleko teknikariaren tituluak edo erdi-mailako graduak hasierako zikloaren ziurtagiria edo kiroleko teknikariaren edo goi-mailako kiroleko teknikariaren tituluak, kasu guztietan, dagokion kirol-modalitatean edo -diziplinan. Era berean, kirol-modalitate edo -diziplina bakarreko oinarritzko mailako lehiaketetan lan egin ahal izango dute aurreko galderan aipatzen diren titulazioen bidez egiaztatu daitekeen kualifikazioen bat duten guztiek, baldin eta, kualifikazio horrez gain, prestakuntza espezifikoa ere egiaztatzen badute dagokien kirol-modalitatean edo -diziplinan.

43. Eta erdi-mailako kirol-modalitate edo -diziplina bakarreko eskola-kiroleko jardueretan (talentuak antzemateko ibilbidea, adibidez)?

Eskatuko den kualifikazioa honako hau izango da: dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako kiroleko teknikariaren edo goi-mailako kiroleko teknikariaren

titulua. Erdi-mailako jardueretan jardun ahal izango dute, halaber, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduaren bidez egiazta daitekeen kualifikazioen bat dutenek, baldin eta prestakuntza espezifikoa badute dagokien kirol-modalitate edo -diziplinan.

44. Errendimendu altuko kirolari batek jardun al dezake begirale- edo entrenatzaile-lanetan, legean eskatzen den kualifikazioa eduki gabe?

Ez. Salbuespena izango da, baldin eta bere kirol-modalitate edo -diziplinako jardueraren bat kasu zehatzen baten garatzen badu; adibidez, kirol-campuseko saioen batean edo antzekoren batean parte hartzen badu. Edonola ere, dagokion jarduerarako eskatzen den kualifikazioa daukan pertsona bat egon beharko da etengabe berarekin.

45. Fitness arloko kirol-jardueretako begiraleek prestakuntza espezifikoa eduki behar dute ematen dituzten jardueretako bakoitzean (zumba, aerobic, kardio box, pilates, eta abar)?

Ez. Egokitzapen fisikoko jardueren begirale izateko, legeak, kirolgileen osasuna eta segurtasuna bermatze aldera, gutxieneko kualifikazioa ezartzen du, eta kualifikazio hori hainbat titulu edo ziurtagiri ofizial bidez eskuratu daiteke, baina ez du jarduera horietarako edo etorkizunean sor daitezkeen gainerakoetarako prestakuntza espezifikorik eskatzen. Erakunde antolatzaileko profesionalak erabakiko du prestakuntza espezifikoa eskuratu ala eskatu behar ote den.

46. Kiroleko begiralearen lanbidean, zein alde dago egokitzapen fisikoko jarduera profesionalen eta irakaskuntza edo ikaskuntzako jarduera profesionalen artean?

Jardueraren lehentasunezko helburuak edo ikuspegiak ezartzen du aldea. Egokitzapen fisikoko jarduerak (horien barruan sartzen dira fitness arloko gehienak: aerobic, ziklo indoor, pilates, muskulazioa, eta abar) lehentasunezko helburutzat dute kirolgileen sasoi fisikoa hobetu edo mantentzea; bestalde, irakaskuntzako jardueretan lehiara bideratuta ez dagoen kirol edo jarduera fisikoko jarduera bat edo hainbat irakastea da lehentasuna (igeriketa, patinajea, kirol anitza, kirol-jokoak, eta abar), edo kirolgilearen gozagarri izatea (xendazaletasuna, parapentea, abentura anitza...), jardueren berezko osagai fisikoez gain.

47. Kontuan hartuta begiraleek eta entrenatzaileek eduki beharko luketen kualifikazio desberdinari eragiten diola, nola bereiz daiteke diziplina anitzeko edo kirol anitzeko jarduera bat, diziplina bakarreko hainbat jarduerak osatzen duten beste batetik?

Diziplina anitzeko jarduera batek (kirol anitza, kirol-hastapena...) hainbat kirol-diziplinako edo jarduera fisikoko jarduera, ariketa edo jolasak garatzen ditu saio berean edo hainbatean, kirol-diziplina edo modalitate batera edo gutxi

batzuetara zehazki bideratu gabe. Aitzitik, kirolgileak esaterako diziiplina bi edo hiru etengabe eta bloketan aukeratu eta egiten baditu ikasturte edo denboraldi osoan zehar, jarduera horiek diziiplina bakarreko jarduerak izango dira, eta, beraz, profesionalak kirol-diziiplina bakoitzari dagokion kualifikazioa eduki beharko du.

48. Garatzen den kirol-diziiplina edo -modalitate bakarreko jarduera noiz sartzen da oinarritzko mailako edo kirol-hastapeneko eremuan?

Lege honen arabera, hauek izango dira kirol-hastapeneko edo oinarritzko mailako jarduerak: kirola egiten dutenek edo kirolariek, edozein adin izanda ere, jarduera ikasteko aurreneko faseetan egiten dituztenak.

49. Garatzen den kirol-diziiplina edo -modalitate bakarreko jarduera noiz sartzen da erdi-mailako edo perfektionamendu teknikoko eremuan?

Lege honen arabera, hauek izango dira erdi-mailako jarduerak: kirolariek teknika-hobekuntzaren etapan egiten dituzten jarduerak. Fase horretan, kirolariek, edozein adin izanda ere, jarduera menperatzen dute.

50. Garatzen den kirol-diziiplina edo -modalitate bakarreko jarduera noiz sartzen da goi-mailako edo errendimendu altuko eremuan?

Lege honen arabera, hauek izango dira errendimendu altuko kirol-lehiaketak: nazioarteko kirol-federazio eskumendunek edo dagokion nazioarteko liga profesionalak baimentzen, ikuskatzen eta arbitratzen dituzten nazioarteko lehiaketa absolutuak, kirol-egutegi ofizialetan sartuta daudenak; estatu-mailako kategoria absolutu goreneko lehiaketa profesional eta ez-profesionalak, bai eta Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailak zehazten dituenak ere.

51. Kirol-erakunde edo profesional batek nola bereiz dezake maila/eremu batzuen eta besteen arteko lerroa?

Edonola ere, jarduerak antolatzen dituen kirol-erakunde edo profesional bakoitzak bete egin beharko du legearen seigarren xedapen gehigarriak mailen arloan ezarritakoa (aurreko galderak/erantzunak) eta jardueren ezaugarrien arabera interpretatuko du. Ikuskaritzarik edo salaketarik badago, hartutako erabakia justifikatu eta egiaztatuko beharko du.

Kirol-modalitate eta -diziplinen kasuan, EAEko kirol-federazioek arautuko dituzte, beren jardueren berezko eremuan, eremuetako bakoitzari dagozkion mailak edo/eta kategoriak.

52. Entrenatzaile laguntzaileek eduki al dezakete entrenatzaile nagusiek baino kualifikazio baxuagoa?

Ez. Lege honen ondorioetarako, entrenatzailearen lanbidean jarduten dute entrenatzaileari laguntzen diotenek entrenamenduak eta lehiaketak

gidatzen, zuzentzen edo kontrolatzen, kirolariei jarraibideak ematen edo antzeko jarduerak egiten. Beraz, kualifikazio berbera eduki beharko dute.

53. EAEko kirol-federazioek beren jardura edo lehietarako bazter al dezakete legearen arabera entrenatzaile-lanetan egoteko aukera ematen duen prestakuntzarik?

Ez. EAEko kirol-federazioek legean aurreikusitako kualifikazio-baldintzak zaindu beharko dituzte.

54. Begiralearen edo entrenatzailearen lanbideari buruzko atal batzuetan bidezko kualifikazioak ezartzen dira. Halaber, legeari jarraikiz, "Hori gorabehera, beste profesional batzuek ere baliatu ahal izango dituzte eskumenak, osasun-lanbideak antolatzeke legeriaren arabera". Horrenbestez, beste osasun-profesional batzuk jardun al litezke begirale edo entrenatzailearen lanetan?

Ez. Osasun-profesionalek ezin dute begiralea edo entrenatzailea izan, beren osasun-titulu akademikoen arabera, eta, edonola ere, kirol lanbideen legean aurreikusitako kualifikazioak eduki beharko dituzte.

KIROLEKO ZUZENDARIA

55. Legearen arabera, edozein kirol-erakundek eduki behar du kiroleko zuzendari bat?

Ez. Legeak ez ditu ezartzen kirol-erakundeek eduki behar dituzten profil profesionalak. Baina lanbideen eginkizunak ezartzen ditu, eta, beraz, erakundeek kiroleko zuzendariaren berezko eginkizunak betetzen dituzten pertsonak badituzte, beren egituretan profil profesional hori eduki beharko dute.

56. Hainbat kirol-modalitate edo -diziplina dauzkan kiroleko federazio edo erakunde batek (kluba, kirol-elkartea, ikastetxea, guraso-elkartea) kiroleko zuzendari bakarra eduki dezake horietarako guztietarako?

Bai, baina kiroleko zuzendari horrek dauzkan zereginak eta prestakuntza eduki beharko dira kontuan. Kiroleko hainbat diziplina edo modalitate dauzkan erakunde edo federazio batek pertsona bat nahi badu kiroleko zuzendaritza orokorreko eginkizunak egin ditzan modalitate guztietarako (esaterako, jarduerak, ekitaldiak, txapelketak edo prestakuntzak planifikatu eta orokorrean koordinatzeko edo jarraibide metodologikoak ezartzeko batez ere alderdi orokorretan, hezkuntzakoetan, gizartekoetan, prestaketa fisikokoetan eta abar oinarritzen diren jardueretarako), kiroleko zuzendari bakarra eduki ahalko du, eta, kasu horretan, zuzendariak Jardura Fisikoaren eta Kirolaren

Zientzien gradua eduki beharko du. Hala ere, erakunde edo federazioak kirol-zuzendaritzako eginkizun zehatzak eta kirol-modalitate edo -diziplina bateko, askoko edo guztietarako berezko zereginak garatu nahi baditu, esaterako kasuan kasuko kirol-diziplinetako jarraibide metodologiko espezifiko teknikoak edo taktikoak planifikatu eta ezarri nahi baditu, erakunde horrek, kirol-diziplina bakoitzerako, kirol-diziplina bakarrera zehazki bideratutako jardueretan kiroleko zuzendariaren lanbidean jarduteko kualifikazioa duten pertsonak eduki beharko ditu. Kasu honetan, goi-mailako kiroleko teknikariaren titulua duten pertsonak izan beharko dira, bai eta dagokion kirol-diziplinan prestakuntza espezifiko duten Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradudunak ere, azken horiekoinarrizko eta erdiko mailetan.

57. Legearen arabera, animazioko zein jardueratan jardun daitezke kiroleko zuzendari-lanetan Jarduera Fisikoko eta Kiroleko Animazioko goi-mailako teknikariaren edo Gizarte eta Kiroleko Irakaskuntza eta Animazioko goi-mailako teknikariaren tituluaren pareko prestakuntza egiaztatzen duten pertsonak?

Orokorrean, batez ere jolaserako diren jarduera fisikoak eta kirolak koordinatzeko jarduerak izango dira, eta instalazio turistiko, aisialdiko jarduera, campusetako edo kirol-kanpalekuetako atal ludiko eta abarretan gara daitezke.

ELKARGOKO KIDE EGITEA ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KIROL ARLOKO PROFESIOALEN ERREGISTROA

58. Zer da Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Arloko Profesionalen Erregistroa, eta zertarako balio du?

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak babesteko tresna da, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzara atxikita dago, eta profesionalen datu hauek eskainiko ditu, argi eta garbi, doan, euskaraz eta gaztelaniaz, elektronikoki ere ikusteko moduan: izen-abizenak eta prestakuntza. Hala, herritarrek aukera izango dute beraiek, beren senideek edo beste pertsona batzuek praktikatzen dituzten profesionalen prestakuntza egiaztatzeko.

59. Zein erregistratu behar da, eta nola?

Legeak arautzen dituen lau lanbideetako batean jardun nahi duten profesionalak erregistratu behar dira, eta, horretarako, erantzukizunpeko aitortpen bat aurkeztu behar dute. Salbuespena izango dira:

- o Estatuan indarrean den legediaren arabera dagokion elkargo profesionalean izena emateko betebeharra duten profesionalak.

- o Lan- nahiz administrazio-arloko zuzenbideak araututako zerbitzu-harreman baten bidez administrazio publikoari lotuta dauden gorputz-hezkuntzako irakasle-lanean soilik jarduten duten profesionalak.
- * Bi salbuespenetan, elkargo profesionalak eta administrazio publiko eskudunak, hurrenez hurren, egoera horretan dauden profesionalei buruzko informazioa igorri beharko dute erregistrora.

BETEBEHAR PROFESIONALAK

60. Zer dira lanbidean jarduteko betebeharrak?

Kiroleko profesionalen jarduna ezarri behar duten jarduerak edo printzipioak dira, eta, beraz, bete egin behar dira. Aipatutako printzipio eta betebeharrak bete ezean, dagozkion administrazio- eta diziplina-erantzukizunak exijituko dira, hala badagokio.

61. Zeintzuk dira betebeharrak edo printzipio horiek?

17 printzipio dira, eta lege-proiektuaren 11. artikuluan agertzen dira. [Lotura.](#)

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

62. Zeinek izenpetu behar du erantzukizun zibileko aseguruaren poliza, zerbitzu profesionalak ematerakoan hirugarrenei eragiten zaizkien kalteengatik eman beharreko kalte-ordainak estaltzeko?

Kontrataturako pertsonak dituzten erakundeek egin beharko dute erantzukizun zibileko aseguruaren poliza. Eta autonomoen araubidean jarduera profesionalak garatzen dituzten pertsonak.

Jarduerak boluntarioek bideratu ezker, dagokion araubidearen arabera, ekintza horiek antolatzen dituzten erakundeek izenpetu beharko dute erantzukizun zibileko aseguruaren poliza.

63. Erantzukizun zibileko aseguru honek zein baldintza bete behar ditu?

Aseguruaren baldintzak legea onartu ondoren arautu behar dira.

LEHEN LAGUNTZAK

64. Zeinek jaso behar du lehen laguntzen gaineko prestakuntza, eta zer nolako prestakuntza izan behar da?

Legea onartzen denean, halaxe bada, pertsona guztiek eduki behar duten lehen laguntzako prestakuntza arautuko da. Horixe eduki beharko dute, beraz, lau lanbideetakoren batean jarduten duten profesional edo boluntarioek. Prestakuntza honen ezaugarriak zehazten direnean, gaur egun lanbide horretan jarduten duten pertsonen artean egiaztatu ahalko da zeinek betetzen dituen ezarritako baldintzak eta zeinek jaso behar duen prestakuntza.

65. Gaur egun lanbidean diharduten eta arauz eskatzen den lehen laguntzako kualifikazioa ez duten pertsonen noiz amaitzen zaie prestakuntza egiteko epea?

2020ko abenduaren 31n.

66. Pertsona batek bere ikasketa ofizialetan egin duen lehen laguntzako prestakuntza baliozkoa izango al da?

Bai, baldin eta etorkizuneko araudian ezarritako baldintzak betetzen baldin baditu.

PLATAFORMA BIRTUALEN BIDEZKO EDO INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIEN BIDEZKO LANBIDE-JARDUNA

67. Zer gertatzen da zerbitzu profesionalak Interneten edo informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez eskaintzen badira?

Profesionalek lege honetan aurreikusitako kualifikazioa bete beharko dute, lanbideak erregulartasunez garatzen badituzte Euskal Autonomia Erkidegoan. Halaber, web-orriek, aplikazioek eta informazioaren eta komunikazioaren gainerako teknologiek, baldin eta *online* entrenamendu-planak eta gisa bereko kirol-arloko eduki teknikoak barne hartzen badute, behar bezala identifikatu behar dituzte plangintza horiek egiten dituzten profesionalak, eta horien kualifikazioari buruzko informazioa eman behar dute.

68. Eta zerbitzu profesionalak plataforma birtualen bidez eskaintzen badira, adibidez begirale birtualak kirol-zentro eta gimnasioetan?

Kasu horretan, erabiltzaileekin saio edo eskola kolektiboak egiteko, kiroleko profesional batek ikuskatu beharko ditu, eta azken horrek legearen arabera dagokion lanbide-kualifikazioa eduki beharko du.

LEGEAREN IRAGANKORTASUNA

69. Noizko eskatuko dira legean kirolaren lanbideetarako ezartzen diren kualifikazioak?

Lege-proiektuan ezarritakoaren arabera, kualifikazioak 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera eskatu ahalko dira. Pertsona boluntarioen kasuan, kualifikazioak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera eskatuko dira. Beharrezko kualifikazioa ez duten pertsonak hura eskuratu ahal izateko epe nabarmena utzi da.

70. Zer gertatzen da gaur egun lau lanbideetakoren batean lan egiten ari diren eta legean eskatzen diren kualifikazioak ez dituzten pertsonekin?

Legeak errespetu handiz jokatzeko du berau indarrean jartzen denean lege honen bidez arautuko diren lanbideetan legeak eskatutako kualifikaziorik gabe jarduten ari direnen eskubideekin. Hori dela eta, esperientziaren eta prestakuntza ez formalaren bidez eskuratutako konpetentziak aitortzeko prozesuak nahiz behin-behinean gaikuntza emateko prozesuak egongo dira.

71. Zertan datza behin-behineko gaikuntza-prozedura?

Prozedura horren bidez, interesdunek arauz ezarritako baldintzetan egiaztatzen badute legea indarrean jarri arte jarduera profesionalak garatzen zituztela erregularitasunez (eta ez aldi berean), legean bertan eskatutako kualifikazioa eduki gabe, jarduera horretan jarraitu ahalko dute. Eskuratuko den gaikuntza kasuan kasuko pertsonak erakunde horretan edo beste batean garatzen zuen mailari edo zereginari lotutako gaikuntza izango da.

72. Noiz eskuratu beharko da behin-behineko gaikuntza, eta zenbat esperientzia-ordu egiaztatuta beharko dira eta nola?

Legea onartutakoan, behin-behineko gaikuntza-prozesuari buruzko alderdi oro arautuko da. Nolanahi ere, legean ezarritako kualifikazio-baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak, beren jarduera profesionala garatzen jarraitu nahi badute, 2020ko abenduaren 31 baino lehen egin beharko dute gaikuntza-prozesua.

73. Eta noiz arte irauko du behin-behineko gaikuntza horrek?

Pertsonak behin-behinean gaituko dira, harik eta gaikuntza hori jaso duten jardueran aritzeko aukera ematen dien kualifikazioa eskuratzeko konpetentziak aitortzen dituen prozedura bat deitzen den arte.

Konpetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedura izango da pertsonak beren lan-esperientziaren edo prestakuntza ez formaleko bideen bitartez eskuratu dituzten konpetentziak ebaluatu eta aitortzeko jardueramultzoa.

74. Zer da konpetentziak aitortzeko prozedura bat, eta nola funtzionatuko luke legearekin lotuta?

Orokorrean: Ebaluazio Batzorde jakin batek baloratzen ditu interesdunak esperientziaren edo prestakuntza ez formaleko bideen bitartez eskuratzen dituen konpetentziak, eta, hala badagokio, horiek dituela egiaztatu eta ziurtatzen du. Pertsonak, kualifikazio jakin bat osatzen duten konpetentzia guztiak eskuratzen baditu, lanbide horretan jarraitu ahalko du; bestalde, konpetentzia guztiak egiaztatzen ez baditu, dagokion prestakuntza egin eta kualifikazioa osatzeko falta zaizkion horiek eskuratu beharko ditu, jarduera profesionalak garatzen jarraitu ahal izateko.

75. Eta, orduan, noiz deituko dira kualifikazio desberdinetarako konpetentziak aitortzeko prozedurak?

Prozedura horiek apurka-apurka deituko dira, kualifikazioz kualifikazio, eta oraindik ez da ezarri data edo epemuga zehatzik. Ondorioz, behin-behinean gaituta dauden pertsonen prozedura horiek gainditu beharko dituzte legeak kasuan-kasuan garatzen diren jarduera profesionaletan jarduteko ezartzen dituen kualifikazioetako bati buruzko prozedura deitzen den unean.

76. Konpetentziak aitortzeko prozedura dagoeneko araututa al dago?

Bai, Kualifikazio Profesionalen Katalogo Nazionalari buruzko prozeduraren kasuan, familia guztientzat, uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuaren (2009ko abuztuaren 25eko BOE) eta azaroaren 10eko 211/2015 Dekretuaren (2015eko azaroaren 18ko EHAA) bidez. [Informazio gehiago.](#)

Kualifikazio Profesionalen Katalogo Nazionalari buruzkoak ez diren jarduera fisiko eta kiroleko familiako kualifikazioen kasuan (arabide bereziko zenbait modalitateko kirol-irakaskuntzak eta trantsizio-aldiko guztiak), Eusko Jaurlaritzak bidezkoak diren prozedurak sortu eta arautu beharko ditu.

77. Behin-behineko gaikuntza eta konpetentziak aitortzeko prozedurak profesionalei soilik aplikatuko zaizkie, edo boluntarioei ere hedatu ahalko zaizkie?

Bi kolektiboek aplikatuko zaizkie.

78. Gaitutako pertsonen kirol-arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko gainerako baldintzak bete behar al dituzte?

Bai, baldintza berberak bete beharko dituzte. Profesionalen kasuan, lehen laguntzako prestakuntza eduki beharko dute 2020ko abenduaren 31 baino lehen, estalita eduki beharko dute erantzukizun zibileko aseguruia, erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Arloko Lanbideen Erregistroan, eta legean lanbide-jardunerako ezartzen diren betebeharrak bete beharko dituzte. Boluntarioen kasuan, lehen laguntzako baldintzak soilik bete beharko dituzte 2020ko abenduaren 31 baino lehen.

79. Zer gertatzen da 2021eko urtarrilaren 1erako ez badago profesional gaitu nahikorik eremu jakin batean?

Legearen arabera, administrazioak egiaztatzen badu ez dagoela lege honetan aurreikusitako kualifikazioak dituen profesionalik une bakoitzean dagoen eskaintzari behar bezala erantzuteko, edo egiaztatzen badu prestakuntza ofizialik ez dagoela edo kirol-esparru berriak sortu direla, kualifikazio txikiagoa edo antzeko beste prestakuntza-mota bat duten pertsonak gaituko ditu behin-behinekoz.

ARAU-HAUSTEAK

80. Zer gertatzen da 2021eko urtarrilaren 1erako, hau da, kualifikazioak eskatzeko ezarritako datarako, jarduera profesionalak egiten dituen pertsona batek ez badauka dagokion kualifikazioa edo, halakorik ezean, ez badu eskuratu dagokion behin-behineko gaikuntza (2022ko urtarrilaren 1a, boluntarioentzat)?

Ezingo du jarraitu dagokion lanbide-jarduera garatzen. Aipatutako epean prestakuntza jasotzeko betebeharra ez betetzea arrazoitzat hartu ahal izango da lanpostutik kentzeko (Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legearen babesean), eta, horrez gain, Langileen Estatutua onartzen duen Legegintzako Errege Dekretuak (urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak) 52. artikuluko a) letran aipatzen den ezgaitasuna agertutzat hartzeko.

81. Eta pertsona batek ez badauka lehen laguntzako prestakuntza?

Kasu horretan ere ezingo du jarraitu dagokion lanbide-jarduera garatzen.

82. Zer gertatzen da pertsona batek lehen laguntzako prestakuntza edo kualifikazioa izan gabe lanean jarraitzen badu?

Administrazioako arau-hauste oso astuna ezarriko zaio Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen zigor-araubidean, eta, beraz, 6.001 euro eta 60.000 euro arteko isun ekonomikoa eta lau urtera arte jarduera eteteko zehapena jarri ahal izango zaizkio.

83. Eta pertsona hori kontratatatu duen erakundearentzat izango al luke ondoriorik?

Nahitaezko kualifikazio profesionala ez duten profesionalak kontratatzea, halakorik eskatu ez delako, arau-hauste oso astuna izango da, eta, beraz, kirol-erakundeei goian aipatutako zehapenak jarri ahal izango zaizkie.

84. Eta legean lanbide-jardunerako ezarritako betebeharrak eta printzipioak urratzen badira?

Administrazioko arau-hauste astuna ezarriko zaio Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen zigor-araubidean, eta, beraz, 601 euro eta 6.000 euro arteko isun ekonomikoa eta bi urtera arte jarduera eteteko zehapena jarri ahal izango zaizkio. Hala badagokio, administrazio, diziiplina- edo zigor-mailako beste erantzukizun batzuk eskatu ahalko dira, aplikatu beharreko antolamendu juridikoaren arabera.

85. Zein da legean ezarritakoa betetzen dela zaintzeko ardura duen administrazioa?

Legean jasotako xedapenak betetzen direla kontrolatzeko ikuskapen-zereginak bete beharko ditu Kiroleko Ikuskaritzak. Ikuskaritza hori Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren menpe dago, eta ofizioz edo salaketarik badago jardun ahalko du.